


Legutio – Otxandio

KOKAPENA



Arabako lurraldean zehar burutzen ari garen txangoari bukaera eman eta Bizkaiko ataria den Otxandioko hiribidura heldu aurretik Albinako urtegia ederra eta Mirugain mendiko pago lepatuen baso zabalak ezagutzeko aukera izango dugu

10 km dituen etapa honek arabar lurraldeko Legutioko hiribidua eta Bizkaiko lurralde historikoaren atarian kokaturiko Otxandioko hiribidua batuko

ditu. Bidean errekaak, ehun urtetik gorako pago lepatuen basoak eta Albinako urtegi ezezaguna izango dira protagonistak.

DESKRIBAPENA

Ibilbideak bide atsegin eta erosoak hartuko ditu motorrak pixkanaka berotzeko. Bide hauek, pagadietan barrena dauden harrien artean eta bide-zidorrez osatutak izango dira. Pista zati batzuk ere zeharkatuko ditugu.

Guztira, berrehun metro desnibeleko eta bederatzi kilometrotako irteera izango dugu. Beraz, exigentzia maila ertaineko irteera izango da. Aspaldian zaldiez tiratutako karroetaz egiten zen ibilbidea denez, exigentzia maila urria dela pentsatzera eramaten gaitu.



IBILBIDEA

KM 0 LEGUTIO. Gaur egun San Roke parkea den hilerrri zaharrak eskaintzen digun panoramika ezin ederragoaz gozatu ostean Legutio atzean utzi eta Albinako urtegirantz joko dugu. Ibilbidea urtegirara doan errepidetik doa hasieran baina laster hau alde batera utzi eta hilerrira igoko den bidezidorretik jarraituko dugu. Erkametz, landaketa, pago eta altzifre artean egingo dugu hilerrri eta urtegia arteko ibilbidea.

KM 3 ALBINAKO URTEGIA. Baso artean dagoen itsasoa balitz bezala azaltzen zaigu urtegiaren paraje paregabe hau. Urtegiaren ur azpian galtzen diren harlauza handi batzuk gogorazten digute hemendik igarotzen zela Aramaioko bide zaharra. Baina guk urbazterretik jarraitu behar dugu, urtegiaren tarte bat inguratuz, harik eta errepidera hurbilduko gaituen bidezidorra hartu arte. Errepidea gurutzatu eta Mirugaineko igoerari ekingo diogu. Maldarik gabeko tarte baten ondoren ibilbideak behera egiten du apur batean, berriro ere gora egiteko, Tantaibakarreko tontorra eskuinean utziz. Mirugaineko gailurrerantz jarraitzen dugu, eta tontorretik gertu PR-BI 50arekin gurutzatuko gara. Mendiko ibilbide labur hau Otxandioko mugetatik doa, Basabisitta gogoratuz.

KM 7.2 MIRUGAIN. Alanbrezko itxidura batzuk zeharkatu eta ehun urtetik gorako pago motzen baso zabalean behera egingo dugu. Baso hauen enborretan oraindik ikusi daitezke gerra zibileko metrailen aztarnak. Jaitsiera luze baten ondoren ibilbidea baso artetik zabalgunera batera helduko da. Puntu honetan pista albo batera utzi eta eskumara joko dugu, Iñolako erreka zeharkatu eta bidexka batetik Gorrien bidea izenez ezagutzen den asfaltatutako bide batera heldu arte.

KM 9.6 OTXANDIO Otxanditik nahiko gertu gaude jada. Bertara heltzeko Olazar pagadia eta izen bereko erreka zeharkatu beharko ditugu, azken hau horretarako egokitutako zubi batzuei esker. Paraje honetan PR-BI 52arekin egingo dugu topo eta honekin batera helduko gara Vitoria-Gasteizko errepide zaharrera, lehenik San Roke ermita ondoko hilerriaren atzeko pagadi zaharra zeharkatuz. Uribarrena kaletik sartuko gara hiribildu zaharrera, bidean Urkiola ibai gaineko zubia zeharkatuz. Etapa Plaza Nagusian bukatzen da. Bertan aurkituko ditugu Otxandiko eraikin garrantzitsuenetako batzuk: udaletxea, Santa Maria eliza, frontoia, Vulcano iturria, bolatokia

